

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko azaroaren 2a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Baztan-Bidasoa • Hilabete osoan ehiza menu bereziak eskainiko dituzte eskualdeko hamaika jatetxek
Idoia Montero • «Haurrak dantza garaikidera etortzea funtsezkoa da»



Prest, adi... abia!

Igandean Iruñea Hiria herri lasterketa jokatu da, bigarren bez. Iazko parte-hartze ona ikusirik, aurten ere antolatzea erabaki du Egunkariaren Lagunak elkarteak, Euskal Herriko Lasterketa Herrikoien Txapelketako azken proba gisa. Hainbat lasterkari nafar ariko dira Euskal Herriko txapela erdiesteko lehian. Baina horietaz landara, beste nafar asko izanen dira igandeko lasterketan, «euskara eta kirola uztartzeko», «kirol pixka bat egiteko», «kirol herrikoa bultzatzeko» edo, besterik gabe, Iruñetik bueltaxka lasterra eman nahi dutelako. Bidean ikusiko dugu elkar.

Barañain •

Gazteen jai eta lana

Hogei bat gazte talde Barañaingo Gazte Kontseilua sortu nahian ari dira lanean

Barañaingo hogei bat gazte talde, hainbat ideologia eta lan esparrutakoak, elkarrekin ari dira lanean Nafarroako lehen gazte kontseilu lokala osatu nahian. Elkarlan horren lehen fruitua egunotan ospatzen ari diren gazte jaiak dira.



Gazte Jaiak Barañaingo hogei bat gazte taldeen artean antolatu dituzte. • JOXE LACALLE

Taldeok Gazte Astea egin zuten iaz. Horren inguruan balorazio ona egin zuten, baina aurtengo aldirako hainbat aldaketa egitea erabaki zuten. Lehenik eta behin, izena aldatu zioten ekitaldi sortari: 'astea' zen lehen eta 'jaia' da orain. Era berean, ekitaldiak ugaltu eta dibertsifikatu egin dituzte.

Gainera, jaiak gune seinalatu bat izan dezan, 1.200 metro koadroko karpa paratu dute. Kar-

pa astearteetako azoka jartzen den lekuan dago, atletismo pisten ondoan, lakuaren hasieran. Bertan izanen dira ekitaldi gehienak. Karpan ere taldeen erakusketak izanen da: haien historia, zer egiten duten, nola... Karpa jartzeko ideia iaz bururatu zitzairen; baina, horretarako dirurik ez zuten, bertan behera utzi zuten asmoa. Aurten aurrekontu handiagoa izan dutenez, karpa jartzea erabaki dute.

Jaien aurrekontua sei milioi pezetakoa da (240.000 libera). Horietako 3,7 milioi Udalak emanen ditu eta beste guziaz hainbat taberna eta babesleren ekarpenarekin eta jaietan irabazten dutenarekin osatuko dute gazteek. Jaiak aurrera ateratzeko ehun bat lagun izanen dira lanean.

Antolatzaileek adierazi dutenez, hainbat helburu betetzeko asmoz antolatu dituzte gazte

Barañaingo Gazte Jaiak

OSTIRALA 2

- 11:00 Mountain Bike lasterketa, karpatik.
- 16:30 Fanzineak, truke azoka, erakusketak...
- 22:00 Rock kontzertua karpan: Sen, Kaotiko, Eraso, Nahikoa Da, Sok eta Deus Ex Machina. Saioren artean, suzko malabareak eta perkusio afrikarra.

LARUNBATA 3

- 11:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira, Santa Maria elizatik.
- 12:30 Harizti dantza taldearen emanaldia, Udaletxe plazan.
- 13:00 Entsalada eta kalderete lehiaketa, Lagunak elkartearen Ondoren, mus txapelketa eta partxis erraldoia.
- 18:00 Joxe Murillo II.aren omenezko pilota txapelketaren finala, Retegi frontoian. Ondoren, kalejira karparaino.
- 23:00 DJ jaiak karpan: Frank Trax, Angel Alkatraz, Julius MC eta DJ Patxi.

IGANDEA 4

- 16:00 Karparen herri eskobatzea eta askaria.

jaiak: gazte taldeen arteko lan-kidetzak indartzeko; ekitaldi sorta zabala eskaintzeko, jendeak ongi pasatzeko; gazte mugimendua bultzatzeko, eta Barañain «lotarako auzoa» ez ezik herri aktiboa dela erakusteko.

Gazte jaiak asteazkenean hasi ziren. Besteak beste, herri kirolak eta play back lehiaketa izan ziren herenegun. Atzo, berriz, hip-hop kulturak hartu zuen jaiak: grafiti eta break dance lehiaketa eta hip-hop kontzertua. Gaur eta bihar mota askotako ekitaldiak egingen dituzte, eta igandean, jaiak bukatzeko, gazte guzien artean karpako zikinkeria garbitu eta askaria egingen dute.

→ Asier azpilikueta

Iruñea

Marengo, are handiagoa

IRUÑEKO UDALEKO HIRIGINTZA eta Etxebizitza sailak sinaturiko erabaki baten arabera, Baiona etorbidean dagoen Marengo dantzalekua eta ondoan egiten ari diren berria, dantzaleku bakarra osatzeko baimena dute. Bi lokalak eskailera baten bidez batuko dituzte.

Inguruko bizilagunak Marengo ondoan beste dantzaleku bat egitearen aurka agertu ziren, dantzaleku bakar bateko arazoak jasatea nahikoa zela uste baitzuten. Baina Iruñeko Udalak, bizilagunen eskakizunei muzin eginez, zabaltzeko lizentzia eman zion dantzaleku berriari. Bizilagunek lizentzia hori errekurritu egin dute, eta, orain, Udalak bi dantzalekuak batzeko baimena eman du.

Marengo Baiona etorbideko 2 eta 4 zenbakien artean dago, soto batean. Horren gainean Osasuna Bingoa zegoen, eta duela zenbait hilabete dantzaleku berria erakitzen hasi ziren bertan. Gauza jakina zen bai Marengok eta baita dantzaleku berriak ere jabe berberak zituztela; Automaticos Pamplona S.L enpresak biak batzeko baimena eskatu zuen eta Udalak eman egin dio. Dena dela, lizentzia behin betiko eskuratzeko, jabeek bi lokalen jardueren errebisioa egin behar dute. Errebisio proiektu horretan arreta handiz aztertuko beharko dituzte «oztopo fisiko-sentsorialen desagertzea, zirkulazioa, inguruko aparkalekuak eta suteen aurkako neurriak». Gainera, azken horretan bereziki, kontuan hartu beharko dute eskailera paratutakoan dantzalekuan jende gutxiago sartuko dela.

→ Daniel Urrutia

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Jendea

La oholkia da, zinez, jendea. Interesgarria da jendea. Jendeak jendea du gogoko, jendeak jendea gorroto du. Jendeak nahi du, jendeak ez du nahi. Batzuetan jendea naiz, besteetan ez. Jende asko Euskal Herrian.

Badu aldaera bat. Askotan jendea herri bihurtzen da. Hitz nobleagoa da, eta zer edo zer eskatu nahi zaionari begirunea erakustea komeni da. Herriarekin broma gutxi, herriari ezin zaio adarra jo. Herria ongi tratatuz gero herria ez da zapuzten. Aski da galdetzea, herriak beti zintzo erantzunen dizu. Hori bai, herriaren ahotsa entzuten jakin egin behar da, belarri fina ezinbestekoa da, eta denok ez dugu ahalmen bera. Horregatik maite ditugu herriak mikrofono aurrean ongi aritzen direnak. Eta kantu-

gile askok ere herria maite dute eta herria atzean izaten dute lagun, eta abesbatza aski ederrak egiten dituzte.

Makurrena da herria gehienetan jende agertzen dela. Eta jendeak desafinatzen joera dauka. Ahantzi egiten du zer egin lezakeen ordena apur batekin jokatu balu. Jendeak ez du jendetasunik. Orduan, xehe izateari utzi eta arrunt bilakatzen da, ordinary people, gente ordinaria?; eta hortik jendaila izatera oso tarte txikia dago.

Baina jendeak berezkoa du zera hori. Kontu pixka bat ere egin zezaketen... Arrunt izanagatik ere, itxura pixka bat egin beharko luke jendeak, konpostura galtzeak, lurreen arrastaka ibiltzeak ez baitio inori mesederik egiten. Baina hori dauka jendea izateak, beti jendea ondoan duela ibiltzea duela gogoko.

Hala dira kontuak. Zoragarria izan zen ikustea zer jendaldea bildu zen. Gu ere hantxe geunden. Eske, jendeak

ez du erremediorik; ala!, denak batera toki guztietara. Jendea ez da konturatzen kaka egiten diotela burutik behera, eta, askotan, gainera pozik ikusiko dituzu. Eta ez iezaiozu deus esan, zapuztuz gero gaiztoa da oso. Sekulako ateraldiak izaten ditu jendeak, ez dago jende xehea bezalakorik aldarte oneko dagoenean, xebreak dira, gero! Zuk ez kasurik egin, hobe isil-isilik egotea, zertarako? Horiek beti berea, besterik ez dute ikusten. Ezjakinak eta zekenak beraiek bezalakoak. Barren-barrenean amultsuak dira, bi ele goxo esan eta berehala dituzu zure alde, tori hau eta tori bestea. Bai kabroia jendea! Agurrik ere ez, askotan. Normal-normal hitz eginez gehiago lortzen da. Orduan, bere atea ireki eta agur egiten dizu esneketa-riak, eta poliziak eta postariak... Jende jatorra, jendea. Up with the people! Eta ez ahantzi, beste alde on bat dauka: la hay donde quiera que vas.

Baztan-Bidasoa • Ehiza platerean



Eskualdeko hamaika jatetxek ehiza menu bereziak eskainiko dituzte azaroan. • EGUNKARIA

Hilabete osoan menu bereziak eskainiko dituzte eskualdeko jatetxeek

Bederatzigarren urtea da Bertizko Turismo Partzuergoak ehizaren inguruko gastronomia jardunaldiak antolatzen dituena. Azaroko hilabete guztian eskualdeko 11 jatetxetan menu bereziak eskainiko dituzte, prezio guztietakoak, ehiza ardatz dutela.

EHIZATOKI EZAGUNAK DAUDE Baztan-Bidasoa eskualdean, eta ehiza prestatzeko ohitura handia ere bai. Bertizko Turismo Partzuergoak bertako bizilagunak, zein kanpotik datozenak mahaira erakarri nahi ditu, eta bide batez eskualdea ezagutzera eman. Bi helburu horiekin, eta bertako jatetxeei bultzada emateko xedearrekin antolatu ditu aurten ere gastronomia jardunaldiok Partzuergoak.

Ehiza platerak, usotik harata-

go doaz, eta horrela, basurdea eta oreina ere probatu ahal izanen dira, bertze produktu anitzten artean. Ohiko moduan prestatuak batzuetan, sukaldaritza berrira egokituak bertzeetan, edo bata zein bertzearen artean ere aurkituko dituzte jatetxeek. Sasoiko bertze produktu zenbait dastatzeko aukera ere izanen da, tartean ilar gorriak, onddo eta zizak, in-txaurrekin, zerrikiak...

Menuak 2.500 eta 4.000 peze-

ta artean kostako dira (100-160 libera), eta jatetxe bakoitzaren esku dago menua prestatzea. Horiek, dagoeneko, euren eskaintza ere egina dute.

Aurtengo jardunaldietan parte hartuko duten jatetxe gehienek ohitura badute antzinako urteetan ere gisako menuak prestatzen. Jatetxeak jakitun dira gero eta jende gehiago etortzen dela ehiza dastatzera garai honetan, eta prezio onean eskainitako menuak izaten dituzte.

MENUEKOKO BI ADIBIDE

Almandozko Beola jatetxea

- Odolki pate
- Foi entsalada epela; edo onddo eta piper saskia; edo Biligarro risotoa.
- Usoa; edo eper gisatua; edo orein osobukoa barazkiekin.
- Jogurt irabiatua mugurdiekin; edo gaztanbera erdi hotza ezti eta in-txaurrekin; edo txokolatzeko buñelo beroak gaztaina karamelizatuekin.

3.800 pztza (edaria eta BEZa kanpo).

Donamariako Benta

- Arroz krema onddo eta zizekin; edo ahuntz gasna entsalada fruitu lehorrekin; edo potxak alkatxofekin.
- Usoa betiko eran gaztaina saltsarekin; edo kanetona ardo xurian; edo orein solomoa plantxan.
- Etxeko torrijak; edo Donamariako gasna feijoa irasagarrarekin; edo gaztaina freskoen izozkia sagar natilekin.

4.000 pztza (edaria eta BEZ kanpo).

Orotara, bada, 11 jatetxek eskaintzen dute aurten menu bereziren bat: Almandozko Beola, Arantzako Burlada, Berako Zalain, Donamariako Benta, Doneztebeko Amezitia, Elizondoko Eskisaroi, Igantziko Ostaturia, Iruriko Olari eta Taberna del fotografo, eta Lesakako Kasino eta Koxkonta. Irailaren 30a bitarte dastatu ahal izanen dira menu berezi hauek aipatutako jatetxeetan.

→ Jon Abril

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Pumorin desagertutakoak gogoan

Guaixe Sakanako hilabetekariak Pumorin zendutako bost euskal mendizaleak izan ditu gogoan bere azken zenbakian, Aritz Artieda etxarriarra eta Jabier Arkauz lakuntzarra, bereziki, hurbil-hurbilekoak zitu-lako. Mendizaleek bidalitako postalak argitara eman dituzte, haien oroimenez. «Gogo-gogoan dugu Aritz, 'Xerpa'. Mendizale eta mendigoizale amorratua; eskia-tzaile, eskalatzaile, trikitalari... 18 urtekin Alaskako McKinley mendira joan zenetik gertu-gertutik jarraitzen genituen bere urratsak. Nork ez du oroitzen Jabi, kirola-

ri peto-petoa. Txirringularia; Lakuntzako labadero zaharrean lagunekin egindako rokodromoan jo eta ke maiz entrenatzen aritutakoa. Bide luzea zuten aurretik egiteko».

«Oraindik ez zaizkigu ahaztu joan zen urtean Perun biek elkarrekin egindako joan-etorriak Pisco, Alpamayo eta Huascarán mendietan barna. Bertan sortu zen Pumorirako espedizioa antolatzeko asmoa eta indarra. Hortxe ikusi ditugu, aurten, herriz herri espedizioko kamisetak saltzen. Irailean Aritz Artieda etxa-

riarra eta Cesar Nieto iruindarra hiru etxarriarekin abiatu ziren Nepal aldera: Jesus Goena, Juan Ramon San Martin eta Iñigo Lazkozekin. Bertan bi asteo trekking bat egin zuten, entrenamendu moduan. Ondoren, Etxarriko hirukotea etxera bueltatu eta Aritz eta Cesar bertan gelditu ziren, Jabier Arkauz lakuntzarra eta beste zazpi gipuzkoarrekin biltzeko. Baina hiru nafarrak eta Beñat Arrue eta Iñaki Aiertza betiko gelditu zazkigu Himalaian, elur-olde batek harrapatuta. Patua patu».

Demoskopia

Telefonoak jo du eta hartzerakoan Demoskopio inkesta bat erantzungo ote dudan galdetu didate. Zertaz eta hizkuntzez. Ados orduan (badakizue: euskararen batez bestekoa igotzeagatik). Neskak orduan aleman, ingeles eta frantses hizkuntzei buruzko galderak egin dizkit: ea ezagutzen ote ditudan eta zein mailatan. Pittin bat aztoraturik ea euskarari buruz ez ote didan galdetuko esaten diot. Berak ezetz, Nafarroako Gobernuak hiru hizkuntza horiek sartu dituela galdetuz eta euskara ez dela agertzen esaten dit. Gogo gabe hizkuntza horiekiko nire ezagupen mailak (baxuak) zehazten dizkiot. Orduan berak ea eskolan, institutuan, unibertsitatean edo nire kasa ikasi ditudan galdetu dit. Nik frantsesa ikastolan ikasi nuela esan diot, baina dena den ikastolan hobekien ikasi nuen hizkuntza euskara izan zela azaldu diot. Euskara galdetuz ez dela sartzen errepikatu dit. Memento horretan bere izkinara bueltatzen den jipoitutako boxeolari bezala sentitzen hasi naiz. Eta kanpaiaren soinuarekin batera hirugarren round-a hasi da: ea atzerrian lan egin ote dudan croxetarekin. Iparraldeko baserri batean lanean ibili nintzela esan diot (Frantzia). Orduan ea nire frantses maila «asko», «nahiko» edo «gutxi» goratu zen galdetu dit. Gehienbat euskaraz egiten genuela erantzun diot. Modu txarrez, eta hirugarren aldiz, euskara galdetuz ez dela kontuan hartzen esan dit. Gero, gaztelania kontuan hartu gabe noski, zein hizkuntzarekin aurrera egin nahiko nukeen galdetzen dit. «Euskararekin» da nire erantzuna. Isiltasuna ariaren beste aldean. Ni hurrengo crochetaren zain gelditu naiz. Egia esan ez dakit nondik ari diren deitzen ere. Madrildik bada taliban batekin topo egin dutela pentsatuko dute. Hurrengo kolpea jaso aurretik «hementxe utziko dugu» esan diot, azalpenei muzin eginiez, eta telefonoa eskegi dut. Errealitatearekiko mespretxu errepikatu eta jasangaitzekin bukatzea deliberatu dut. Nafarroaz eta hizkuntzez ari garela euskara ere aipagai izan behar zela iruditzen zait. Kosmopolitismo eza izango da nahi baduzue, edo talibanismoa. Berdin zait. Ringeo dago-kidan izkinan nire zauriak isilpean sendatuko ditut. ●

Aitatasun gorria

Semeaz. Jon semeak hamar urte egin ditu gaur. Eta bost ordu daramatza negar zotinka, komunean itxita. Larunbat gauean, **Jose Luis Moreno**ren-gandik ihesi, Guinness errekorren liburuaren saioa ikusi genuen telebistan. Ingeñari sorta itzela pantailaratu zuten: litro bat esne hiru segundotan edaten duen holandarra, minutu batean buruarekin hamabi sandia hausten dituen kataluniarra... **Yolanda Barcina** ez zuten atera, Parlamentuari izkin egiten marka guztiak hausten ari bada ere. Ez eta Kortezubiko alkate hura, **MARCO** ezdakitz, munduko bururik handiena zuena, ipurdiarekin intxaurrak hausten zituena. Nik saioa ahaztua nuen. Semeak, ordea, ez. Guinnesseko epailea deitzeko eskatu du. Negar egiteko marka guztiak hautsiko dituela dio. Eta disgustuari etekina atera nahi dio. Azkarra mutikoa.

Aitaz. Hasiera batean ikastolara joan eta psikopedagogoari aholkua eskatzea bururatu zait. Gero *Ser padres* aldizkaria erostea. Baina psikopedagogoari ez zaio futbola gustatzen. Eta *Ser padres* ez dute aipatzen futbola, psikomotrizitate arazoez aritzeko ez bada. Eta futbola da, hain zuzen ere, Jonen kasketaren eragilea. Gauzak horrela, Monte Carlorra joan naiz, Samuelengana. Samuelek ezer gutxi daki futbolaz. Eta ezer ere ez aitatasunaz. Baina kuba-libreak zerbitzatzeaz guztia daki, eta nik kuba-librea behar nuen. Aitatasuna gogorra da, gogorra denez, eta ez dago bigunduko duen aholku emalerik. Gauzak horrela, hobe



Javier Miranda, azken hauteskundeetan UPN gailendu duen bakarra.



Nafarroako Parlamentua, Yolanda Barcinaren izkina egiteen biktima.

anestesiatazea: kuba-librea, gerritik gorako epidurala.

Espirituaz. Jon semea kaskagogorra da, kaskagogorra denez. Azken hiru hilabeteetan gauza birekin tematu da. Bata, Juan Kruz bere berezko izena bazterrean uztea eta aurrerantzean Jon deitzea -irakasle talibanen batek burmuin garbiketa egin diolakoan nago-. Bestea, urtebetetzarako Osasunaren elastikoa erostea. Hain justu, atzo erosi nion kamiseta, sakrifizio handia eginez.

Unzuko kirol saileko lankideak ezin ditut jasan. Gomina darabilte. Axe desodorantearen kiratsa darie. Idorreria konikoak jota dirudite. Unzun, baina, etxeko langileei deskontua egiten digute. Hartara, kirol sailera joan behar izan nuen, zorioneko elastikoa erostera.

Gorritasunaz. Semearentzat kamiseta hoberena hartu nuen. Lankide gominadunak sorbaldan zer izen jarri nahi nion galdetu zidan. **Juan Jesus Ostibar** eta **Patxi Irigibel** eto-

rri zitzaizkidan gogora. Baina bazterrean utzi nituen, semeak, jakina, ez zituelako ezagutuko. Zalantzakor ikusita, lankide Axedunak semearentzat bazen **Pipa Gancedo** jartzeko gomendatu zidan. Cordovillako egunkariaz, erdilari argentinarraren handiustez, lankideaz nazka-nazka eginda, **Javier Miranda** jartzeko eskatu nion, esan nion, agindu nion. Orain semea etxeko komunean itxita dago, negar zotinka, eta ni Monte Carloko barran, kuba-librea edaten.



panpilonia zirkus

Enrike Diez de Ultzurrun

Larekiren bedeinkazioa

«Iruñeko dermioan, hezurak nonahi agertzen dira. Badira zeltarrenak, erromatar, bisigodo, franko, arabiar, judutarrenak...». «Eta, baskoienak?» moztu zion ikasleak Unibertsitateko Katedradunari. Hogei urte eta bi egun joan dira, eta ikasle ohia oraindik erantzunaren zain dago. Nolanahi ere, Iruñean ez da hilerri bakarra egon, aunitz baizik. Garai batean, hildakoak eliza edo komentuetan ehorzten zituzten, edo eliza ondoko lursailetan.

Ondoren, ikusi zuten horrek guztiak gaitzak eta eritasunak sortzen zituela eta erabaki zuten kanposantua hiritik edo harresietatik kanpora eramatea. Horrela, urte sail luze batez, Biurdana izan zen iruindarren azken bizilekua, egungoa, Beritxitosekoa egin artean. Biurdanako lurak berriz goldatu eta bertako baratze-

zainek sos ederrak irabazi zituzten, lur horietan ateratzen ziren lekak, letxugak eta eskarolak handiak bezain goxoak zirelako. Orain ere, Biurdanan ateratzen omen da hiri osoko belarririk gozoena.

Azken karlistaldian, ordea, hildakoak berriz ere harresien barrutiaren barnean lurperatu behar izan zituzten, karlistek Iruñea setiatu zutenean. Setioak bizimodu arrunt gogortu zuen, baina iruindarrak ez ziren ehorzketen aferaz ohartu; zapel gorriek hildakoak garraiatzeko gurdia eta mandoa bahitu arte. Han agertu omen zen, Arga bazterrean, karlista talde bat, lauzpabost tiro jo, defuntuaren etxekoei ospa egiteko agindu eta akabo harresiz kanpoko ehorzketak. Hildakoaz ez da berririk.

Gerra bukatutakoan, udalak bertze gur-



Larekiren bedeinkazioa jaso dutenak, Iruñeko hilerrian.

di eta mando bat paratu zituen, Beritxitoseraino joateko. Hori, jakina, sosik ez zutenendako. Hiriko aberatsek, ordea, bazuten euren gurdi dotorea, goiko aldean urrezko hariz bordatua, sei zaldi lepabeltz odol garbik tiratua, lehen mailako ehorzketak, alegia. Bigarren eta hirugarren mai-

eramandako iruindarren urrezko haginez jabetzen zena, azken otoitza egitearekin batera. Duela gutxi lurra alde hartan mugitu, kaskezur bat ia haginik gabe atera eta obrak ikusten ari zen jubilatutako batek hauxe erran zuen: «*Honek ere Larekiren bedeinkazioa hartu zuen*».

Idoia Montero

☉ DANTZARIA

«Haurrak dantza garaikidera hurbiltzea funtsezkoa da»

soslaia

Dantzaria, batez ere, baina aktore ere bada Idoia Montero iruindarra. Antzerkian aritua da, eta berriki, Laura Bellosoren *El último cuento* film laburrean parte hartu du. Iruñetik Madrilera joan zen, eta han, bat egin zuen Helena Berrozperekin.

Lagun eta lankide izan dira Montero eta Berrozpe, eta orain, A la par konpainia sortu dute elkarrekin. *Atrévete a soñar* euren lehen ikuskizuna Iruñeko Gaiarren estreinatu ondoren, abenduaren 26an Madrilan aurkeztuko dute. Lau hilabetez egindako lanaren emaitza da lan hori.



● MIKEL SAIZ

Joan den urriaren 21ean *Atrévete a soñar* bere lehen ikuskizuna aurkeztu zuen Iruñeko Gaiarre antzokian A la par konpainiak. Idoia Montero eta Helena Berrozpe dantzari iruindarrek osatu dute taldea, dantza garaikidearen munduan konpainia egonkorra izateko asmoarekin.

kidea haurrengana hurbildu nahi dugu, uste dugulako haur horiek pertsona heldu bilakatzeko direnean dantza ulertuko dutela eta gustuko izanen dutela. Dantza garaikidea, egun, ez da ezagutzen, eta horregatik

funtsezkoa da haurrak mundu horretan txikitatik sartzea.

■ **Publiko helduari, beraz, oraindik kostatzen zaio dantza garaikidea ikustera joatea?**

Bai, eta hori gertatzen da ezagutzen ez dutelako. Ez baitago aukera handirik dantza garaikidea ikusteko. 80 eta 90eko hamarkadetan, gainera, dantza garaikidea oso intimista zen, dantzariak barrura begiratzen zuten, eta ikuskizunak tragikoegi eta trinkoegiak ziren, eta jendeak nekez ulertzen zituen. Ondorioz, gutxiengo bat besterik ez zen jotzen dantza garaikidea ikustera. Guk uste dugu dantza garaikidea hori baino askoz zabalagoa dela. Helenak, hain zuzen ere, Escaparate de danza konpainia du Madrilan, eta konpainia horrek helduentzako ikuskizunak prestatzen ditu, baina duela urte batzue-

tako zentzu tragiko horretatik urrun. Nik ere parte hartu dut konpainia horretan, eta gauza freskoak egiten genituen, umorea erabiliz; umorea ere bada dantza garaikideak erabili dezakeen errekurtsoa. Arazoa da jendeak horren berririk ez duela.

■ **Publiko berria sortzea zaila da?**

Bai, aurreiritziak daudelako eta behar duen laguntza guztia

«80ko eta 90eko hamarkadetan dantza garaikidea oso intimista zen, ikuskizunak tragikoegiak ziren; gure ustez, dantza garaikidea hori baino zabalagoa da»

ez duelako jasotzen dantza garaikideak. Finean, dantza garaikidea da egun bizi duguna, egun sentitzen eta bizi duguna adierazteko dugu baliabidea. Horregatik erabaki dugu haurrentzako lana egitea.

■ **Haurrentzako koreografia bat prestatzeko orduan, nolako elementuak hartu behar dira kontuan?**

Guk argi genuen obra entretenigarria egin behar genuela. Badakigu dantza ikuskizun hutsarekin zaila dela haurren arreta gureganatzea, eta horregatik, beste elementu batzuekin jokatzen dugu, bideoarekin esaterako.

■ **Konpainia egonkorra izateko asmoarekin paratu duzue abian A la par konpainia; baduzue helduentzako obrak egiteko asmoa?**


Bai, noski. Oraingoan, gure lehen ikuskizun hau ahal dugun leku guztietan erakutsi nahi dugu. Haurrekin lanean jarraitu nahi dugu, baina helduentzako obrak ere prestatu nahi ditugu. Badakigu zaila dela, baina ilusio handia dugu, eta gogor lan egiteko prest gara.

→ Edurne Elizondo

■ **Zer moduz estreinaldia?**
Oso pozik gaude, bai ni baita Helena Berrozpe ere, biok sortu baitugu konpainia. Harrituta gelditu ginen publikoaren jarrearekin, denbora osoan isil-isilik izan zirelako denak. Horregatik oso pozik gaude. Bi emaldi egin genituen, eta oso harrera ona izan zuen obrak.

■ **Zergatik aukeratu duzue haurrentzako lan bat konpainia ezagutzera emateko?**

Bai, argi dago. Dantza garai-



● A LA PAR



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Gure gerra

Urrunegi gelditzen omen zaizkigu Afganistango lurraldeak, ez ditugu hango herritarren aieneak entzuten, ez ditugu gorpu odoltsuak ikusten, ez ditugu gau luzeak bunkerretan igarotzen, ez diogu zeruari ikaraz betea begiratzen, negu honetan ez gaitu goseak akabatuko. Ez omen da hori gure gerra.

Gure gerra bestelakoa da, eta ez du zerikusirik gure aiton-amonek ezagutu zutenarekin. Telebistaren bidez ikusten dugu, garbia da, modernoa eta konplikazio handiegirik gabekoa: berehala esaten digute nortzuk diren onak eta nortzuk gaizto, zenbat sufritu duten batzuek, zein basapizti diren besteak. Izarrak eta barrak ikusten ditugu non-nahi eta igandekarietan agertzen diren soldaduak modernoena dira, ekintzaile bereziak, zirbergizonak (eta akaso ziberemakumeren bat), hiltzeko jaiok. Baina, hori bai, sofistikazio handiz.

Duela hilabete batzuk mapari begirata ez genekien non zegoen Kabul, islama ez zen existitzen Opusaren erresuman eta arabiarren liskarrak petrolio tartean zenean baino ez genituen ezagutzen. Baina hori aldatu da, askatasun iraunkorra martxan da, kosta ahala kosta sartuko da indarrean eta inork ezin izanen dio uko egin mendebaldetik datorren salbazioari. Mendeku hitza ezabatu behar izan dugu gure hiztegietatik.

Inork galdetu ez digun arren, gu ere gerran gaude. Nahiz eta kontrakoa uste arren ez gara neutralak, gerra batean sartuak gaude eta gu alde batean gaude. Gustatu ala ez. Gure diruarekin armak, telepredikadoreak, hegazkinak eta zeharkako kalteak ordaintzen dituzte; gure isiltasunarekin kontsentsua, iritzi publikoak, diskurtso hipokritak elikatzen dituzte eta justizia Chuck Norrisen erara banatzen dute.

MUSIKA

- **Iruztun:** Kantiruki taldeak kontzertua emango du gaur, 20:00etan, kultur etxean.
- **Barañain:** Sen, Kaotiko, Eraso, Nahikoa Da, Sok eta Deus Ex Machina taldeek kontzertua emango dute gaur, 22:00etan, Gazte Astearren karpan.
- **Iruztun:** Danburia laukoteak Pirinioetako herri kantak eskainiko ditu bihar, 20:00etan, kultur etxean.

BERTSOLARIAK

- **Oitz:** Gaur, 21:00etan, bertso afaria egingen dute Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin.
- **Lesaka:** Bihar Txapelketa Nagusiko laugarren azken-laurdena jokatu dute frontoian, 18:00etan. Iratxe Ibarra, Ainhoa Agirreazaldegia, Xabier Silveira, Arkaitz Ugartetxea, Asier Otamendi eta Aitor Mendiluze ariko dira.
- **Urepele:** Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Gillen Hiribarren, Patxi Iriart, Mizel Mateo, Jon Lopategi eta Txomin Ezponda bertsolariak omenaldia egingen diote Xalbadorri igandean, 17:00etan.
- **Iruñea:** Asteartean Jose Luis Otamendik eta Iñigo Aranbarrik, hiru musikariren laguntzarekin, *Ibiltarixanak* ikuskizuna eskainiko dute Gurutzeko plazako Institutuko areto nagusian, 20:00etan; XX. mendeko olerkigintzaren antologia irakurri eta kantatua.
- **Iruñea:** Ostegunean bertso saioa egingen dute 20:00etan Gurutzeko plazako Institutuko areto nagusian, Peñagarikano, Jexux Mari Irazu, Ekintza Landa, Maialen Lujanbio, Iñigo Ibarra eta Oskar Estanga bertsolariekin.

HITZALDIAK

- **Berriozar:** Laura Mintegi idazlea

gure aukerak

Sisifo maiteminez bere liburuaz solastatuko da ostegunean Zulo Alai elkartearen (Rekalde, 12), 20:00etan.

► **Zangoza:** Juan Cruz Labeaga historialariak Zangozako hileta erritoak izanen ditu mintzagai asteazkenean, 20:30ean, kultur etxean.

► **Zangoza:** *Diario de Noticias* egunkariko zuzendari Pablo Muñozek kazetaritza eta adierazpen askatasuna izanen ditu solasgai ostegunean, 20:30ean, kultur etxean.

IKASTAROAK

► **Iruñea:** SOS Arrazakeriak kultu-

ren arteko hezkuntza ikastaroa antolatu du aisialdi begiraleentzat. Hilaren 9an eta 10ean egingen dute, Zabaldin. Informazioa eta izen ematea, 948-211521 telefonoan.

ERAKUSKETAK

► **Burlata:** Mikel Landaren margolanak Joakin Azkarate kaleko kultur aretoan ikusten ahal dira hilaren 11 arte, asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

► **Mutiloagoiti:** Iruñeko Arte Eskolan euren ikasketak bukatu dituztenen olio lanak kultur etxean izanen dira ikusgai hilaren 14a arte,

astelehenetik ostiralera 17:00etatik 21:00etara, larunbatetan 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.


► **Zizur Nagusia:** Mugarik Gabeko Medikuen elkartearen argazki erakusketa hilaren 18a arte izanen da kultur etxean.

► **Iruñea:** Ormolu galerian (Paulino Caballero, 45) Sagrario San Martinen olio pinturak izanen dira hila bukatu arte.

BESTELAKOAK

► **Noain:** Gau eskolak (948-317144) monitore euskaldunak behar ditu, boluntario gisa taillerak aurrera ateratzeko.

JOXE LACALLE



Joxek Joxeri

Iruñeko Auditorioa —Baluarte izeneko hori— eraikitzeko lanetan laguntzeko, garabi handi bat paratu zuten lehengoan. Seiehun tonako V itxurako garabi horrek 27 metroko habe prefabrikatuak mugituko ditu leku batetik bestera. Baluarteko komunikazio bulegoak, eraikinaren handitasuna nabarmentzeko edo, gonbita egin zien hedabideei garabi itzel horren lanaren lekuko eta konplize izan zitezten. EGUNKARIAk bere «betiko» argazkilaria bidali zuen, Joxe Lacalle. Lan eremuan sartzeko, kaskoa paratu behar izan zuen Joxek buruan; argazkia egiteko prest, beraz. Baina, han zegoela, ditzosozko garabia ez zitzaion batere interesgarria iruditu eta nahiago izan zuen lan eremuaren sarreran dagoen ispilu bati argazkia egitea, argazkilaria egunkarian agertzeko modu bakarra baita. Eta bejondeiola! Garabia ere ikusten ahal dugu bere atzean!